

# Erasoen aurrean **ERANTZUN** dezagun

Aisialdi-, jai- edo kultura-inguruneetan lan egiten duten pertsoneri zuzendua.



## Zer da indarkeria sexista?

Indarkeria sexista emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten indarkeria da. Gizonen eta emakumeen arteko harreman hierarkikoetan oinarritzen da, emakume guztien eskubideak mugatuz. Esparru guztietan gertatzen da, eta modu ezberdinetan azaltzen da. Fisikoa, psikologikoa, afektiboa, sexuala, ekonomikoa... izan daiteke.

## Eraso sexistak saihesteko prebentzio jarduerak



**Adierazi** gunean ez dela inolako jarrera sexistarik onartuko, eta, erasorik izanez gero, neurriak hartuko direla. Eraso sexisten aurkako itsasgarria ageriko leku batean jarri.



**Formatu.** Guneko langile guztiek izan behar dute protokoloaren berri, baita jakin ere nola jokatu.



**Behatu.** Lanean ari zaren bitartean erne egon eraso egoerak identifikatzeko. Kontuan hartu emakume langileek ere erasoak jasan ditzaketela. Alkoholak eta bestelako drogek ez dute ezer justifikatzen.



**Zaindu** tabernan jartzen duzun musika eta publizitatea egiteko irudiak. Ez sustatu emakumeen irudi iraingarria eta ez baimendu indarkeria sexista naturalizatzen duen mezurik.

## Zer egin eraso sexista izanez gero



**Joan eta galdetu** laguntzarik behar duen. Emakumeak berak erabakiko du laguntza nahi duen edo ez. Emakume bat berarekin egotea lehenetsi.



**Entzun**, enpatia handiz, kontatzen dizuna. Ez jarri zalantzan, ez epaitu eta ez errudun sentiarazi. Errespetatu haren nahia eta jakinarazi ez dagoela bakarrik.



**Lagundu.** Laguntza nahi izanez gero, informazioa emateko leku lasai eta segurua identifikatu. Ez utzi inoiz bakarrik.



**Informatu.** Arreta telefonoen berri eman. Bere eskubidea da, baita salatu nahi ez badu edo bere egoera administratiboa irregularra bada ere. Nahi badu, zuk zeuk deitu eta lagundu diezaiokezu.



**Baztertu.** Erasotzailearekin hitz egin eta argi utzi gunean ez dela jarrera sexistarik onartuko, eta neurriak hartu: erasotzailea tabernatik bota, argiak piztu, musika itzali, eta abar.

## Sexu eraso izanez gero

- ▲ Oso garrantzitsua da osasun zentrorra joan arte ez garbitzea bere arropa eta gorputza, eta ahoko sexu eraso izan bada, **ez edatea eta ez jatea ezer**, frogak ez ezabatzeko.
- ▲ **Lekuko izan bazara**, saiatu erasotzailearen inguruko informazioa memorizatzen.

### Telefonoak

#### ARRISKUA BADAGO:

- ▲ **SOS DEIAK:** 112 (24 ordu)

#### INFORMAZIOA/ARRETA NAHI BADA:

- ▲ **SATEVI:** 900 840 111 (24 ordu)
- ▲ **Gizarte Ekintza:** 943 481 400 (astelehena – ostirala 9:00-14:00)
- ▲ **Donostiako Emakumeen Etxea:** 943 483 470 (astelehena – ostirala 10:00-21:00)



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Berdintasuna  
Igualdad

ezezetzda.eus

#noesno  
#festetanereaske

# RESPONDAMOS ante las agresiones

Dirigido a personas que trabajan en entornos  
de ocio, festivos o culturales.





## ¿Qué es la violencia sexista?

La violencia sexista es la violencia que sufren las mujeres por el hecho de serlo. Se basa en relaciones jerárquicas **de los hombres sobre las mujeres**, limitando los derechos de todas las mujeres. Se da en todos los ámbitos y se manifiesta de diferentes maneras. Puede ser física, psicológica, afectiva, sexual o económica.

## Actuaciones preventivas para evitar agresiones sexistas



**Advierte** que en tu bar o local no se tolerará ninguna actitud sexista y que en caso de agresión se tomarán medidas. Coloca el adhesivo contra las agresiones sexistas en un lugar visible.



**Formación.** Todo el personal del bar o local debe conocer el protocolo y la forma de actuación.



**Observa.** Mientras trabajas, permanece alerta para poder identificar situaciones de agresión. Ten en cuenta que las mujeres trabajadoras también pueden ser agredidas. El alcohol y otras drogas no justifican nada.



**Cuida** la música y las imágenes de la publicidad que proyectas en tu bar. No promuevas una imagen de las mujeres degradante ni permitas mensajes que naturalicen la violencia sexista.

## Actuación en caso de agresión sexista



**Acércate** a la víctima y **pregúntale** si necesita ayuda. Ella decidirá si la quiere o no. Prioriza que sea una mujer quién esté con ella.



**Escucha** con empatía lo que te cuenta. No cuestiones, ni juzgues, ni culpabilices. Respeta su deseo y hazle saber que no está sola.



**Ayuda.** Si desea ayuda, identifica un lugar tranquilo y seguro para darle información. No la dejes nunca sola.



**Infórmale** sobre los teléfonos de asistencia. Es su derecho, incluso si no quiere denunciar o su situación administrativa es irregular. Si ella lo desea, puedes llamar tú y acompañarla.



**Rechaza.** Habla con el agresor y déjale claro que no se tolerarán actitudes sexistas; y toma medidas: expulsa al agresor del bar, enciende las luces, apaga la música, etc.

## En caso de agresión sexual

- ▲ Es muy importante que no se laven las ropas y el cuerpo, **ni se coma o beba si ha habido agresión oral**, hasta que no se acuda a un centro sanitario, ya que de esta forma se evita la eliminación de pruebas.
- ▲ Si has sido testigo, intenta memorizar información sobre el agresor.

### Teléfonos

#### SI HAY PELIGRO:

- ▲ **SOS DEIAK:** 112 (24 horas)

#### SI SE DESEA INFORMACIÓN/ATENCIÓN:

- ▲ **SATEVI:** 900 840 111 (24 horas)
- ▲ **Acción Social:** 943 481 400 (lunes-viernes 9:00-14:00)
- ▲ **Casa de las Mujeres de Donostia:** 943 483 470 (lunes-viernes 10:00-21:00)



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Berdintasuna  
Igualdad

[noesno.com](http://noesno.com)

#noesno  
#festetanereaske